

"Sexu-heziketa: kalitatezko harremanen alde" ikastaroaren balorazioa

Gazteen Euskal Behatokiak 2021eko formakuntza planeko lehen ikastaroa antolatu du

'Sexu-heziketa: kalitatezko harremanen alde' ikastaroa antolatu du Gazteen Euskal Behatokiak urtarrilean. Formazio honen helburu nagusia izan da, hezitzaileek berauen lan esparruan aritzen diren haur eta gazteen sexualitateari arreta eskaintzea, sexualitateak pertsonen garapen integralean duen garrantziaz kontzientzia hartuz, ulermen eta lantze jarreretatik aritzeko baliabideak jorratuz.


Ikastaroa **Maidier García de Vicuña Quintanak** eman du, Sexologian aditua (InCiSex) eta Psikologian lizentziaduna. **EMAIZE** Sexologia Zentroan langilea.

9 lagunek partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilak dituztenak:

- Gehienak, % 89, gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, foru-aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Beste % 11 hezkuntza aratuari lotutako lagunak izan dira.

Ikastaroak 15 orduko iraupena izan du, hiru egunetan banatua eta ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):

Ikastaroaren balorazioa (batez bestekoa, 0tik 10era doan eskalan)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta